# IRAILA
# SEPTIEMBRE

2016



Az
Azkuna Zentroa

AlhóndigaBilbao

www.azkunazentroa.com







ZINEMATEKA

# JOSE MARI ZABALA ZIKLOA
# CICLO JOSE MARI ZABALA

**Irailaren 13tik 15era** Del 13 al 15 de septiembre

Azkuna Zentroko Zinematekak Jose Mari Zabala (Irun, 1949) artista esperimentalaren lana aurkeztuko du. Ziklo horretan, zeluloidean egin zuen lehen filma —'Axut', 35mm-tan filmatua Euskal Herrian, 1973. eta 1975. urteen artean— eta azken filma —'Cuba Corazón', bideoan grabatua Kuban, 2000. urtean— egongo dira ikusgai. Programa osatzeko, egileak 80ko eta 90eko hamarkadetan egin zituen bideo laburren aukeraketa bat proiektatuko da.

Haren ekoizpen ugaria aski ezezaguna da, aurrez aurreko saioetan baizik eskaintzen ez delako, eta, ondorioz, Jose Mari Zabala zabalkuntzako bideetatik kanpo garatu da. Juan Pérez Agirregoikoa artistak proposatua eta 'Donuts' izenburupean, 2006an Zabalak bere bideografiaren erakusgarri bat eskaini zuen Iñaki Imaz margolariak Donostian duen estudioan, eta, era horretan, harremanetan jarri zen artisten belaunaldi berriekin.

La Zinemateka de Azkuna Zentroa presenta el trabajo del artista experimental Jose Mari Zabala (Irun, 1949). En él se presenta su primera película en celuloide titulada 'Axut', filmada en 35mm en el País Vasco entre 1973 y 1975; y su última película 'Cuba Corazón' grabada en vídeo en Cuba en el año 2000. El programa se completa con una selección de vídeos cortos realizados por el autor durante las décadas de los 80 y 90.

Debido a que únicamente se ofrece en sesiones presenciales, la prolífica producción de Jose Mari Zabala se mantiene relativamente desconocida, desarrollándose al margen de los canales de difusión. A propuesta del artista Juan Pérez Agirregoikoa y con el título de 'Donuts', en 2006 Zabala ofreció una muestra de su videografía en el estudio del pintor Iñaki Imaz en Donostia, lo que sirvió para ponerle en contacto con las nuevas generaciones de artistas.

| | | |
|---|---|---|
| **IRAILAK 13** DE SEPTIEMBRE<br>**Asteartea** Martes | 19:00 | **Film laburren proiekzioa 60'**<br>Proyección de vídeos cortos 60'<br>**Juan Pérez Agirregoikoaren hitzaldia eta elkarrizketa Jose Mari Zabalarekin 60'**<br>Charla de Juan Pérez Agirregoikoa y conversación con Jose Mari Zabala. 60'<br>**Bastida Aretoa** Sala Bastida<br>**Sarrera dohainik, gonbidapenarekin (jaso Infopuntuan), leku guztiak bete arte**<br>Entrada libre con invitación (recoger en Infopuntua) hasta completar aforo |
| **IRAILAK 14** DE SEPTIEMBRE<br>**Asteazkena** Miércoles | 17:30<br><br>19:30 | **AXUT (1975) 82'**<br>**Golem Alhóndiga Zinemak** Cines Golem Alhóndiga<br>**CUBA CORAZÓN (2000) 76'**<br>**Golem Alhóndiga Zinemak** Cines Golem Alhóndiga<br>**4,5€ / 3,5€** |
| **IRAILAK 15** DE SEPTIEMBRE<br>**Osteguna** Jueves | 17:30<br><br>19:30 | **CUBA CORAZÓN (2000) 76'**<br>**Golem Alhóndiga Zinemak** Cines Golem Alhóndiga<br>**AXUT (1975) 82'**<br>**Golem Alhóndiga Zinemak** Cines Golem Alhóndiga<br>**Filma aurkezten** Presenta la película: Jose Mari Zabala<br>**4,5€ / 3,5€** |

## AXUT (1975)

Zuzendaritza, errealizazioa eta edizioa: Jose Mari Zabala.

Aktoreen zerrenda: Koldo Garate, León Poplawsky, Iñigo Altolaguirre, Pedro Campillo, Elena Irureta, María Ziegler.

Egungo eta iraganeko presentziak —lapurrak, militarrak, piratak, exekutiboak, fraideak, indartsuak, sorginak...— biltzen dituen ikonografiatik abiatuta, eta musikekin eta zaratekin eratutako ahozko aurreko hizkuntza erabiliz, euskal irudideriaren erretaula bizidun bat aurkezten du, zirku metafisiko baten moduan.

## CUBA CORAZÓN (2000)

Zuzendaritza, errealizazioa eta edizioa: Jose Mari Zabala.

Dokumental hau bi bidaietan egin zuen, Karibeko uhartean 45 egun eman ondoren, eta bide ofizialetatik kanpo arituta, kontrol hori saihesteko. Lehen eskuko ikuspegia ematen du 2000. urteko Kubako eguneroko bizitzari buruz.

## AXUT (1975)

Dirección, realización y edición: Jose Mari Zabala

Reparto: Koldo Garate, León Poplawsky, Iñigo Altolaguirre, Pedro Campillo, Elena Irureta, María Ziegler.

A partir de una iconografía que reúne presencias contemporáneas y del pasado —cacos, militares, piratas, ejecutivos, frailes, forzudos, brujas…— y un lenguaje preverbal de músicas y ruidos, Zabala propone un retablo animado del imaginario vasco a modo de circo metafísico.

## CUBA CORAZÓN (2000)

Dirección, realización y edición: Jose Mari Zabala

Realizado en dos viajes con un total de 45 días a través de la isla caribeña y actuando al margen de los canales oficiales, como única opción para poder eludir su control, este documental propone una visión de primera mano de la vida cotidiana en la Cuba del 2000.